

Liburuak

KRITIKA

Konpromiso bat literaturarekin

Hemeroteka

Aritz Galarraga

LITERATURA GALEGOARI gutxi-asko tarteka begiratu diogunok sarri-askotan egin dugu topo Xosé Luís Méndez Ferrínekin. Dela idatziak dituen lanak ugari direlako –poesia, narratiba, saiakera–, dela belaunaldi ezberdinek aitortzen diotelako nolabaiteko aitatasuna. Pentsa, adostasuna erabatekoa izan zen 1999an, Méndez Ferrín Nobel sarirako hautagai proposatu zutenean. Eta arraro-arraro ere ez da, ez alferrik idazle hori dugu literatura galegoa modernitatera ekarri zuena, oraindik literatura ahots berezko eta indartsuenetakoa dena.

Egia da ez dela beste batzuk bezain ezaguna, ez behintzat Madriletik honako bidean. Eta motiboak bilatzen hasita, egiten dugu topo harri kozkor batekin: politika. Eta jakiten dugu gaitz larri batek jota duela idazlea, independentista eta marxista dela aldi berean –jainko potzoloa!–. Eta horregatik akaso euskaraturik dioten lanik garrantzizkoenak, *Mugaldeko jendea* honek eragin dezake gauza bat besteren gainera: harridura. Narrazio errealista mezudunak espero dituenak ken dezala laster batean ideia burutik, oso bestelakoak baitira hemen aurkituko



Mugaldeko jendea.
Xosé Luís Méndez Ferrín.
Itzulpena: Bego Montorio.
Elkar, 1998.
200 orrialde. 15,40 euro.

dituenak. Oso bestelakoak eta haien artean ezberdina oso.

Muga da Galizia eta Portugal bereizten dituen, Ourense hegoaldean. Eta ez da hainbeste lurralde literario baten sortzea, nola lurralde erreal baten literariotzea, diakronikoa gainera, liburuak kurrutzen baitu XIX. mendetik 36ko Gerra artekoa. Geografia baten denboran zeharreko ibilbidea, beraz, nahiz ipuinak izan ukitu fantastikoa (*Galtza urdinak*), nahiz izan onirikoa (*Adosinda izuturik*), toponimo errealak hemen irakurleak aurkituko baititu zientoka. Berdin ipuin itxuraz errealistagoak direnean ere, Ignacio Martínez de Pisón idazleak *Partes de guerra* hartan bildutako *Beste horiek* adibidez. Edo antologia berean egon litezkeen *Gomazko botak* eta *Militantearen amets urdina*. Eta denen gainean halako esperimentazio kutsu bat aurkituko dugu, denborak, pertsonak nahasteko joera, irakurketa exigente bat, irakurlea aktibo izatea eskatuko duena. Konpromiso bat literaturarekin, edozer, bertan goxo egotea baino.

Eta egia da Méndez Ferrín ez dela beste batzuk bezain ezaguna, zer dakit, Manuel Rivas bat edo, *Nunca más* antolamendukoei laguntzearen, Euskadi Irratiak egin kanpainan bildutako txeketa hartzera etorri zenean *El País* egunkariko bisita-txartelak ematen zituen galegoa zen idazle ez-galego hura bezain. Beharrik ere. Arazoa geurea da, haatik, inoiz utzi behar baikenioke Madrilen derrigor geltokia duen trenan soilik hartzeari.



tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com